

2022ko bigarren hiruhilekoan 2.271 ezkontza egin ziren, aurreko urtean baino % 24,8 gehiago

Senarren % 93k eta emazteen % 86,8k 30 urte baino gehiago zituzten


Eustaten datuen arabera, 2022ko bigarren hiruhilekoan 2.271 ezkontza izan ziren Euskal AEn, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean (1.820) baino % 24,8 gehiago. Hiruhileko honetako datuak 2019ko hiruhileko bereko datuekin alderatzen baditugu, ezkontzen kopurua % 4,5 igo da. Bi datuok erakusten dute aurreko bi urteetan atzeratutako ezkontzak berreskuratu egin direla. Ezkontza guztietarik, 2.212 sexu desberdineko pertsonen arteko ezkontzak izan ziren, eta 59 sexu bereko pertsonen artekoak, 36 emakume artekoak eta 23 gizon artekoak.

Inskripzioaren lurraldea kontuan harturik, ezkontzen kopuruak gora egin zuen hiru lurraldeetan: Bizkaian 1.037 ezkontza izan ziren, Araban 268 eta Gipuzkoan 818. Bestalde, 148 ezkontza Euskal AEtik kanpo erregistratu ziren.

Bigarren hiruhilekoan ohikoa den bezala, nabarmen igo zen ezkontzen kopurua, eta nabarmentzekoa da ekainaren kasua, hilabete horretan egin baitziren hiruhileko horretako ezkontzen % 44,9.

Euskal AEko ezkontzak Euskal AEn inskribatuak, hilaren arabera

Guztira eta joera



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

2022ko udaberriko hilabeteetan, ezkontza zibilen portzentajea % 91,2 izan zen; % 88,2 sexu desberdineko pertsonenak izan ziren, eta % 2,6 sexu berekoenak, nahitaez zibilak denak. 2022an, portzentaje hori 1,2 puntu txikiagoa izan zen 2021eko hiruhileko berekoa baino.

2022ko bigarren hiruhilekoko 2.271 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn zuten 2.103 gizonetzko eta 2.129 emakumezko ezkondu ziren. 1.741 senarrentzat (% 82,8), lehen ezkontza izan zen; 28 alargun eta 334 dibortziatu berriz ezkondu ziren. Emakumeen lehen ezkontzen ehunekoa gizonena baino handiagoa izan zen: aurretik ezkondu gabe zeuden emakumeak 1.793 izan ziren (% 84,2), alargunak 14 eta dibortziatuak 322.

Atzerriko nazionalitatea duten ezkontideen ehunekoak behera egin du

Ezkontideen adinaren arabera banaketari dagokionez, senarren % 93k eta emazteen % 86,8k 30 urte baino gehiago zituzten. 2021eko aldi berean, proportzioa % 91 izan zen gizonen kasuan eta % 85,6 emakumeenean.

2022ko apirilean, maiatzetan eta ekainean, gizonetzko ezkonberrien % 11,5ek eta emakumezko ezkonberrien % 16,2k atzerriko nazionalitatea zuten. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, portzentaje hori ehuneko 0,5 puntu jaitsi da gizonen artean eta 1,1 emakumeen artean.

Egoiliarren ezkontzak, inskripzio-lurraldearen, ezkontza-motaren, ospatzeko moduaren, aurreko egoera zibilaren, adinaren eta ezkontza-hilabetearen arabera (1). 2022/II

	Oraingo hiruhilekoa (2022/II)		Aurreko hiruhilekoa (2022/I)			Aurreko urteko hiruhileko bera (2021/II)		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)
Ezkontza	2.271	100,0	1.044	100,0		117,5	1.820	100,0
Araba / Álava	268	11,8	132	12,6		103,0	246	13,5
Bizkaia	1.037	45,7	533	51,1		94,6	837	46,0
Gipuzkoa	818	36,0	335	32,1		144,2	637	35,0
Euskal AETik kanpo	148	6,5	44	4,2		236,4	100	5,5
Heterossexualak	2.212	97,4	1.007	96,5		119,7	1.744	95,8
Kanonikoak	201	8,9	46	4,4		337,0	139	7,6
Zibilak	2.011	88,6	961	92,0		109,3	1.605	88,2
Homossexualak	59	2,6	37	3,5		59,5	76	4,2
Gizon artean	23	1,0	17	1,6		35,3	22	1,2
Emakume artean	36	1,6	20	1,9		80,0	54	3,0
Senar-emazteak	2.103	100,0	997	100,0		110,9	1.677	100,0
Ezkontgabea	1.741	82,8	791	79,3		120,1	1.363	81,3
Alargunak	28	1,3	10	1,0		180,0	17	1,0
Dibortzuatuak	334	15,9	196	19,7		70,4	297	17,7
30 urtetik beherakoak	147	7,0	103	10,3		42,7	150	8,9
30 - 39 urte	865	41,1	354	35,5		144,4	698	41,6
40 urte eta gehiago	1.091	51,9	540	54,2		102,0	829	49,4
Espainiarrak	1.861	88,5	794	79,6		134,4	1.475	88,0
Atzerriko nazionalitatea	242	11,5	203	20,4		19,2	202	12,0
Emazteak	2.129	100,0	999	100,0		113,1	1.731	100,0
Ezkontgabea	1.793	84,2	801	80,2		123,8	1.429	82,6
Alargunak	14	0,7	11	1,1		27,3	15	0,9
Dibortzuatuak	322	15,1	187	18,7		72,2	287	16,6
30 urtetik beherakoak	282	13,2	136	13,6		107,4	248	14,3
30 - 39 urte	958	45,0	421	42,1		127,6	771	44,5
40 urte eta gehiago	889	41,8	442	44,2		101,1	712	41,1
Espainiarrak	1.785	83,8	720	72,1		147,9	1.432	82,7
Atzerriko nazionalitatea	344	16,2	279	27,9		23,3	299	17,3
Ezkontzaren hilabetea								
Apirila	494	21,8					404	22,2
Mayatza	758	33,4					577	31,7
Ekaina	1.019	44,9					839	46,1

(1) Datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2022ko Azaroaren 28a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62